



### 153. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaia herrian, 2021eko urtarrilaren 28an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Iñaki Ostolaza Esnal, jna.

Bertaratutako zinegotziak: Alex Oliden Antia, jna.  
Maider Alberdi Yeregui, and.  
Asier Arakistain Alberdi, jna.  
M. Aranzazu Gajate Telleria, and.  
Oier Korta Esnal, jna.  
Iker Mardaras Arrieta, jna.  
Ainhoa Illarramendi Azkue, and.  
Arritokieta Marañón Basarte, and

Ez bertaratuak: M. Arritokieta Iribar Egaña, and.  
Marina Bidasoro Arocena, and.  
Jose María Azkue Castillo, jna.  
Maddi Aldalur Osa, and.  
M. Cruz Alvarez Aparicio and.  
Miren Aitziber Odriozola Etxezarreta, and.  
Cristina Vicente Iciar, and.  
Gotzon Embil Unanue, jna.

Idazkaria: Gorka Urgoiti Agirre

#### 1.- AURREKO BILERETAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA: (152. zbkia – 2020.12.17)

152. Akta onartutzat ematen da.-



**2.1.- PROPOSAMENAK.-**

**2.1.1.- ZUMAIAKO ARRITOKIETA KALEA, 24-B FATXADA BIRGAITZEKO OBRARI, ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGAN %95EKO HOBARIA APLIKATZEA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-**

**ZUMAIAKO ONDARE HISTORIKOKO, ARKITEKTONIKOKO ETA INGURUMEN-ONDAREKO FATXADAREN BIRGAITZE INTEGRALEKO ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGAREN GAINEKO %95EKO HOBARIA APLIKATZEKO PROPOSAMENA, ZUMAIAKO ARRITOKIETA KALEA 24-B FATXADARI DAGOKIONA.**

**AURREKARIAK**

1.- 2021eko urtarrilaren 21ean, obra-lizentzia eskatu zuten ARRITOKIETA KALEA 24-BKO JABEKIDEEK Zumaiaiko Arritokieta kalea 24-B-ko fatxada konpontzeko.

2.- Jabekideek aurkeztutako idazkiaren bidez, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren gaineko %95eko hobaria aplikatzeko eskatu zen, Zumaiaiko Arritokieta kalea 24-B-ko fatxada konponduko delako.

3.- Udal zerbitzu teknikoen txosten teknikoa hobaria aplikatzearen aldekoa da, 26.566,25 euroko egikaritze materialaren aurrekontuan oinarrituta.

**PROPOSAMENA**

1.- Zumaiaiko Arritokieta kalea 24-Bko fatxada birgaitzeko obrari, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan %95eko hobaria aplikatzea onartzea, exekuzio materialaren aurrekontua (26.566,25€) kontuan hartuta.

Zumaia, 2021eko urtarrilaren 25a.

**Lurralde Antolamenduaren batzordeko batzordeburua**  
Iñaki Ostolaza Esnal

Proposamena lantzeko bozketaren egiten da

**Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Abstentzioak: 0**

**Kontrako botoak: 0**

**ERABAKIA:** Proposamena lantzea erabakitzen da

Orain proposamen bera bozkatuko dugu.

**Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Abstentzioak: 0**



**Kontrako botoak: 0**

**ERABAKIA: 1.- ZUMAIAKO ARRITOKIETA KALEA 24-BKO FATXADA BIRGAITZEKO OBRARI, ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGAN %95EKO HOBARIA APLIKATZEA ONARTZEN DA.-**

**2.1.2.- ZUMAIAKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZA-REN BIGARREN ALDAKETA-RI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.-**

**2021EKO URTARRILAREN 28KO OSOKO BILKURARAKO PROPOSAMENA, ZUMAIAKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZAREN BIGARREN ALDAKETARI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO.**

**AURREKARIAK**

**1.-** 2017ko Udaldian jarri zen indarrean ZUMAIAKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZA, urte horretan ez zen Herri-gune osoan ezarri. 2018. Urtean eta prozesu parte-hartzaile bat garatu eta gero mahai tekniko politiko bat osatu zen ordenantzaren lehen aldaketa idazteko. Prozesu guzti hauen ondoren Zumaia Udaleko osoko bileraren 2018ko maiatzaren 17ko ezohiko bilkuran ordenantzaren lehen aldaketa onartu zen. Aldaketa honetan TAO eremua Udalerri herri-gune osora zabaltzen zen.

**2.-** 2019ko urtarrilaren 11an, aurrez osatutako mahai tekniko politikoari deialdia luzatu zitzaion. Bertan TAO ordenantzaren ezarpenaren balorazio bat egin zen, eta, horren ondorioz, ordenantza honen bigarren aldaketa planteatu zen.

**3.-** Bigarren aldaketari 2019ko martxoaren 28an egindako ohiko Osoko Bilkuran, hasierako onespina eman zitzaion eta Jendaurrean jarri zen 30 egunez, eta hiru alegazio jaso ziren.

Administrazio-epeak direla eta, kontuan hartuta ez zela egokia iruditzen ordenantza uda-garaian behin betiko onartzea, ordenantza behin betiko onartu gabe utzi zen.

**4.-** 2020ko urtearen hasieran berriro heldu zitzaion ordenantzaren aldaketari baino, pandemia egoera medio, ezin izan zen, berriro ere, prozesua burutu.

**5.-** 2020ko udazkenean, udaldiaren ostean, Zumaia Udalak prozesu parte-hartzaile bat hasi du, TAO sistemari buruz hausnartzeko. Parte hartzeko prozesu horren barruan, egungo sistemaren hainbat alderdiri buruzko inkesta bat jarri da abian, bai eta galdetegi ireki bat ere, herritarrek beren iritzia emateko eta proposamenak islatzeko aukera izan dezaten. Aldi berean, mahai tekniko politikoa aktibatzen da, orain balorazio-mahaia deitua.

Parte-hartze prozesu horren ondorioz idatzi da TAOren Ordenantzaren bigarren aldaketa hau.



**6.-** 2021-01-18ko Lurralde Batzordean ZUMAIKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZAREN bigarren aldaketa informatu zen

**7.-** Ikusirik Udalei trafiko eta zirkulazio gaietan legez ematen zaizkien eskumenena aipatutako ordenantzaren aldaketa egin da

### **PROPOSAMENA**

Ondorioz, 2021eko urtarrilaren 28ko **OSOKO BILKURAN** honako botoekin:

Alde:  
Aurka:  
Abstentzioa:

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

**LEHENA.-** ZUMAIKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZA-REN BIGARREN ALDAKETA-ri hasierako onespena ematea.

**BIGARRENGOA:** Ordenantzaren hasierako onespeneren iragarkia GAOn argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua joko da.

Zumaia, 2021ko Urtarrilaren 28a.  
LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDEBURUA  
Iñaki Ostolaza Esnal

PROPOSAMENA denez, hemen aztertzeko proposamena onartzen dugun edo ez bozkatuko dugu,

**Aldeko botoak: 9 bozka (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Abstentzioak: 0**

**Kontrako botoak: 0**

**ERABAKIA:** Proposamena tratatzea onartzen da,

Proposamena azaldu eta eztabaidatu ondoren bozketa egiten da



**Aldeko botoak: 5 bozka (EH BILDU) ,**

**Abstentzioak: 0**

**Kontrako botoak: 4 bozka ( 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**ERABAKIA:** 1.- Zumaia Udalerriko Bide Publiko Jakinetan Ibilgailuen Aparkamendua eta Gune Jakin Batzuen Zirkulazioaren eta Erabileraren zenbait alderdi arautzeko ordenantza-ren bigarren aldaketa hasierako izaeraz onartzen da

2.- Ordenantzaren hasierako onespeneren iragarkia GAOn argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea, erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua joko da.

### **3.- OGASUNA.-**

#### **3.1.- PROPOSAMENA.-**

##### **3.1.1.- 2021EKO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-**

#### **ZUMAIKO UDALA**

#### **2021ERA KO ZERGA ORDENANTZAK**

#### **TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOETAN APARKATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEKO ORDENANTZA**

Trakzio mekanikodun ibilgailuak Zumaia udalerrian ibilgailuak aparkatzeari buruzko araudi erregulatzailerak zehazten duenaren arabera, udal bide publikoetan zehaztutako alderdietan aparkatzen direnean sortzen den udalaren herri jabetzaren aprobetxamendu berezia da tasa honen egitate zergagarria.

Aparkatzea ibilgailua bost minutu baino gehiago geldituta izatea da, gelditu beharra zirkulazioak berak eragin ez badu behintzat.

Aparkatzeko bereizgarria edo baimena lortu eta, kasu bakoitzean, dagokion baldintzetan aparkatu ahal izateko, Zumaia udalerriak ibilgailuak aparkatzeari buruzko araudi erregulatzaileraren arabera, honako zerga-kuotak ezarri dira:

**Egoiliarrentzako txartela/bereizgarria urteko** ~~denberaldirako~~ (bizileku bakoitzeko)

Txartela edo bereizgarria.....10 €



**Zumaia Udala**

2021IAKU0001-A21/0695

- 2. txartela edo bereizgarria.....15 €
- 3. txartela edo bereizgarria.....20 €
- 4. txartela edo bereizgarria.....25 €

**udako** denberaldirako (bizileku bakoitzeko)

- 1. txartela edo bereizgarria.....10 €
- 2. txartela edo bereizgarria.....15 €
- 3. txartela edo bereizgarria.....20 €
- 4. txartela edo bereizgarria.....25 €

**Egoiliarrentzako aparteko txartela/bereizgarri berezia urteko** denberaldirako (bizileku bakoitzeko) ibilgailua Zumaian altan emandakoak  
Txartela edo bereizgarria.....10 €

**udako** denberaldirako (bizileku bakoitzeko), ibilgailua Zumaian altan emandakoak  
1. txartela edo bereizgarria.....10 €

**Egoiliarrentzako aparteko txartela/bereizgarria berezia urteko** denberaldirako (bizileku bakoitzeko), ibilgailua Zumaian altan ez emandakoak,  
Txartela edo bereizgarria.....15 €

2. txartela edo bereizgarria.....20 €

**udako** denberaldirako (bizileku bakoitzeko), ibilgailua Zumaian altan ez emandakoak

- 1. txartela edo bereizgarria.....15 €
- 2. txartela edo bereizgarria.....20 €

**Jarduera ekonomikoekin lotutako ibilgailuen aparteko txartela/bereizgarria, urteko denberaldirako** (entitate juridiko/fisikoko)

Ibilgailua Zumaian altan emandakoak:

- Txartela edo bereizgarria.....25 €
- 2. txartela edo bereizgarria.....35 €
- 3. txartela edo bereizgarria.....45 €

Ibilgailua Zumaian altan ez emandakoak:

- Txartela edo bereizgarria.....35 €
- 2. txartela edo bereizgarria.....50 €
- 3. txartela edo bereizgarria.....65 €

**Txartela/bereizgarria bigarren etxebizitzako, urteko denberaldirako** (bizileku bakoitzeko)  
Txartela edo bereizgarria.....15 €

**Udako denberaldirako** (bizileku bakoitzeko)

- 1. txartela edo bereizgarria.....15 €

**Egoiliarrak ez diren langile, eta autonomoen aparteko bereizgarria, udako** denberaldirako

- Txartela edo bereizgarria.....20 €

**Aratu gabeko guneetako egoiliarren bereizgarria, udako denberaldia, Zumaian erroldatuak.**

- Txartela edo bereizgarria.....10 €
- 2. Txartela edo bereizgarria.....15 €
- 3. Txartela eta ondorengoak.....20 €



**Zumaia Udala**

2021IAKU0001-A21/0695

**Aratu gabeko guneetako egoiliarren bereizgarria, udako denboraldia, Zumaian ez erroldatuak (Zumaia udalerriko bide publiko jakinetan ibilgailuen aparkamendua eta gune jakin batzuen zirkulazioaren eta erabileraren zenbait alderdi arautzeko ordenantzaren 13.b) artikulua jasotakoaren arabera)**

- Txartela edo bereizgarria.....15 €
- 2. Txartela edo bereizgarria.....20 €
- 3. Txartela eta ondorengoak.....25 €

**Salaketa deuseztatu, errotazio handiko eta egonaldi ertaineko zonaldean, 90 minutuko muga gainditu gabe.....10€**

**Salaketa deuseztatu, egoiliarren zonaldean, 90 minutuko muga gainditu gabe .....19 €**

Txartel edo bereizgarriaren ordezkapenagatik, ibilgailuaren edo etxebizitzaren aldaketagatik, edota beste edozein arrazoiengatik.....5€

Aparkatzeko txartela atera behar den zonaldeetako tarifak:

zonaldea	Denbora												
	15'	30'	60'	90'	120'	180'	240'	300'	360'	420'	480'	540'	600'
<b>Errotazio handikoa</b>													
<b>A1- A2</b>	0 €	0 €	1,25	2	2,75	3,5	x	x	x	x	x	x	x
<b>A3</b>	0 €	0 €	1,25	2	2,75	3,5	x	x	x	x	x	x	x
<b>B1</b>	0 €	0 €	1,25	2	2,75	3,5	x	x	x	x	x	x	x
<b>B2</b>	0 €	0 €	1,25	2	2,75	3,5	x	x	x	x	x	x	x
<b>C1</b>	0 €	0 €	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
<b>Egonaldi Ertaina</b>													
<b>1.- Itsas Kiroldegia</b>	0,25	0,5	0,75	1	1,5	2	2,75	3,5	4,25	5	5,75	6,5	8
<b>2.- Axular</b>	0,25	0,5	0,75	1	1,5	2	2,75	3,5	4,25	5	5,75	6,5	8
<b>3.- GKN</b>	0,25	0,5	0,75	1	1,5	2	2,75	3,5	4,25	5	5,75	6,5	8

Puntualki Udalerriera lanera etortzen diren gremioek, txartel hauek errotazio handiko eta egonaldi ertaineko guneak kudeatzeko jarriko diren makinetan lortu ahal izango dira, dagokien tasa egonaldi ertainekoa izango da.

Subjektu pasiboak aparkaleku-bereizgarrien titularrak diren pertsonak izango dira, Zumaia udalerrian araututako bereizgarria jaulkitzea daramaten kasuetan, eta,



**Zumaia Udala**

2021IAKU0001-A21/0695  
horretarako, mugatutako udal bide publikoetako eremuetan aparkatutako ibilgailuen gidariak.

Bereizgarriren bat jaulkitzea dakarten aparkatze baimenen eskaeren kasuan, dagokion tasaren sortzapena izango da aparkatze baimena ematen den unean; eta baimenaren berritze automatikoa egiten bada, sortzapena izango da urte bakoitzeko urtarrilaren lehenean. Aldiz, araubide orokorraren mendeko aparkatze baimenen kasuan, tasen sortzapena izango da horretarako mugatutako udal bide publikoen eremuetan aparkatzen den unean.

Salbuespenak:

Estatuak, autonomia erkidegoek eta toki erakundeek ez dituzte tasa hauek ordaindu behar ez zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio zerbitzu publikoei dagozkien aprobeixamenduengatik, ez herritarren segurtasunari edo nazioaren defentsari zuzenean lotuta daudenengatik.

Arrazoi sistematikoengatik indarrean dauden eta garatzen ari diren legeei erreferentzia egiten dieten ordenantza honetako arauak eta ordenantza honetako arauei erreferentzia egiten dieten beste arauak zuzenean aldatu edo ordeztuko dira, horien jatorri diren legezko arauak aldatzen diren unean.

2/1990 Foru Arauak bere 8.artikuluan dionaren arabera: "tasak ezartzerakoan kontutuan edukiko da ordaindu behar dituzten pertsonen ahalmen ekonomikoa."

Zumaian,

Alkatea

Aurreko atalean eztabaidatu da eta besterik gabe bozkatzera pasako dugu, lehendabizi proposamena ekartzen dugula eta gero ordenantza fiskala bozkatu dugu

**Aldeko botoak: 9 bozka (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Abstentzioak: 0**

**Kontrako botoak: 0**

**ERABAKIA:** Proposamena tratatzea onartzen da.-

Orain, ordenantza fiskala bozkatuko dugu,

**Aldeko botoak: 5 bozka (EH BILDU) ,**

**Abstentzioak: 0**

**Kontrako botoak: 4 bozka ( 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**





**ERABAKIA:** 1.- 2021eko ordenantza fiskalen aldaketa onartzen da.-

2.- 2021eko ordenantza fiskalen aldaketaren iragarkia GAOn argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea erreklamazio edo iradokizunak aurkeztu ahal izateko. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, akordioa behin betikotzat hartua joko da.

#### **4.- PERTSONALA.-**

##### **4.1.- IRIZPENA:**

**4.1.1.- ZUMAIKO UDALEKO ETA ZUMAIKO KIROL PATRONATUKO LANGILEEN ORDAINSARIEI, 2021EKO URTARRILAREN 1EKO ERAGIN DATATIK %0,9KO IGOERA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.**

**2021EKO URTARRILAREN 19KO PERTSONAL BATZORDEAREN IRIZPENA, 2021ERAKO ZUMAIKO UDALEKO ETA ZUMAIKO KIROL PATRONATUKO LANGILEEN ORDAINSARIEN %0,9 IGOERAREN ONARPENAREN INGURUAN, 11/2020 LEGEAK, abenduaren 30ekoak, ESTATUAREN 2021erako AURREKONTU OROKORREI BURUZKOAK ARAUTZEN DUENAREKIN BAT.**

#### **AURREKARIAK**

1.- 2020ko abenduaren 31ean, 11/2020 Legea, abenduaren 30ekoa Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzkoa argitaratu da Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE).

2.- Aipatutako legeak, 18.2 artikuluan ondorengoa arautzen du:

**Bi. 2021. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariek ezin izango dute ehuneko 0,9ko igoera baino handiagoa izan 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, alderaketaren bi aldiatarako homogeneousotasunari dagokionez, bai langile-kopuruari bai antzintasunari dagokienez.**

3.- Zumaia Udaleko langileen ordezkariekin 2021eko urtarrilaren 19an egindako bileran igoeraren berri eman da.

4.- 2021erako udal aurrekontuetan aurreikusi da ordainsarien %0,9ko igoera estaltzeko kreditua.

#### **IRIZPENA**

Ondorioz, 2021eko urtarrilaren 19ko Pertsonal Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

#### **ALDEKO BOZKA:**

Asier Arakistain (EH-Bildu)  
Arantza Gajate (EH-Bildu)  
Oier Korta (EAJ)



**ALDEKO** irizpena eman du eta honako Proposamen hau Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.i) eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo **PROPOSAMENA** egin da

1.- 2020ko abenduaren 30eko 11/2020 Legeak, 2021erako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzkoak arautzen duena kontuan izanik, Zumaia Udaleko eta Zumaia Kirol Patronatuko langileen ordainsariei, 2021eko urtarrilaren 1eko eragin datatik %0,9ko igoera aplikatzea.

Asier Arakistain Alberdi  
Pertsonal batzordeburua

Irizpena tratatu eta gero bozketa egiten da

**Aldeko botoak: 9 bozka (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Abstentzioak: 0**

**Kontrako botoak: 0**

**ERABAKIA:** 2020ko abenduaren 30eko 11/2020 Legeak, 2021erako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzkoak arautzen duena kontuan izanik, Zumaia Udaleko eta Zumaia Kirol Patronatuko langileen ordainsariei, 2021eko urtarrilaren 1eko eragin datatik %0,9ko igoera aplikatzea onartzen da.-.

## 5.- ESKARI – GALDERAK

Tratatzeko gairik ez dagoenez Udalbatza bukatutzat ematen da,

-----

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zazpiak eta bost minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria



**Zumaiako Udala**

2021IAKU0001-A21/0695